

## Kudeaketa Irizpideak – 2019ko Deialdia

### Teleprestakuntza eta Prestakuntza Mistoa

*Prestakuntza-ekintza bat Teleprestakuntzan eta Prestakuntza Mistoan egiteak, modalitate presentzialeko ekintzen kasuan bezala, irakatsi eta ikasteko prozesu bat egongo dela bermatu behar du.*



#### Edukiak

- Teleprestakuntzak elkarreragina eskatzen du **parte-hartzaileen, tutore-prestazaileen eta beste leku batean dauden baliabideen artean**. Teleprestakuntza ez da PDFko edo beste formatu bateko edukiak deskargatze hutsa.
- Parte-hartzaileak edukiak/irakasgaiak jorratu dituela erregistratuta geratu behar da.
- Parte-hartzaileek, prestakuntza-ekintza egiteko, helburuak lortzearen erakunde prestazaileak egokitzen adierazitako iraupena bete behar dute. Iraupenaren **% 75etik beherako konexioak** dituzten parte-hartzaileak ez dira amaitutako parte-hartzailetzat joko.



#### Jarraipen eta ebaluazio-kontrolak

- Ebaluazio-probak egin ahal izateko, parte-hartzaileak haien sorburu diren edukietan sartu behar du aurretiaz, **jarraipenaren eta ebaluazioaren plangintzan ezarritakoa kontuan hartuta**.
- Tutore-prestazaileak ziurtatu egin behar du proba horiek prestakuntza-prozesua garatzeko **sekuentzia egokiaren** arabera egiten direla.
- Amaitutako parte-hartzailetzat jo ahal izateko, konexio-denboraz gainera, prestakuntza-ekintzarako ezarritako aldizkako jarraipen- eta ebaluazio-kontrolen gutxienik % 75 egin behar izango du.

## TELEPRESTAKUNTZA



#### Tutoretza-jarduerak

- Tutore berak ez du espezialitate desberdinetako prestakuntza-ekintzen tutoretzan jardun behar. Egoera hori sortuz gero, zein gaitasun dituen eta zein laguntza tekniko duen zehaztuko da (adituak).
- Tutore-prestazaileak prestakuntza-ekintzan zehar egindako jardun guztien erregistroa eramango du, eta bereizi egingo ditu, alde batetik, parte-hartzaileek egindako kontsulta eta zalantzen ebazpena eta, bestetik, **dagokien eginkizunaren berariazko jarduerak (horien gutxienekoak deialdiaren 4. eta 13. artikuluetan zehazten dira)**. Tutore-prestazailearen esku-hartzeak eginkizun honetara egokitu behar du: tutoreen jarduna planifikatzea eta prestakuntza-ekintza programatzea.



#### Plataformak sortutako erregistroak

- Informazioa hobeto tratatzeko, Hobetuzek plataformaren bidez sortu eta erregistratzen diren datuak eskatuko ditu kalkulu-orriko **informatika-euskarrian**, 1.DOK. ereduaren arabera: parte-hartzaileen jardura-datuak (lehen eta azken sarbidearen datak, konexio-orduen kopurua, egun desberdinen kopurua), ebaluazio-proben datu osatuak (gauzatze-datak, emandako denbora...), eta egindako tutoretzei eta erantzundako kontsultei buruzko datuak.
- Ikasleak eta horiek egiten dituzten jardura guztiak erregistratu behar ditu plataformak. Era berean, erraztu egingo du parte-hartzaileek ikastaro bakoitzeko elementu eta jardura bakoitzean izandako igarotzea eta plataformaren barruan egindako klikatzeen arteko denborak jasotzeko bidea emango duten txostenak editatzea.

Kudeaketa Irizpideak – 2019ko Deialdia

### Teleprestakuntza eta Prestakuntza Mistoa

*Prestakuntza-ekintza bat Teleprestakuntzan eta Prestakuntza Mistoan egiteak, modalitate presentzialeko ekintzen kasuan bezala, irakatsi eta ikasteko prozesu bat egongo dela bermatu behar du.*



### MODALITATE MISTOA (ORDU PRESENTZIALAK + TELEPRESTAKUNTZA ORDUAK)

Prestakuntza mistotzat hartu ahal izateko, **modalitate bakoitzeko edukiek desberdinak izan behar dute**, eta prestakuntza presentzialerako eta teleprestakuntzarako bereizi eta zehaztu behar dira.

Teleprestakuntza zatian, finantzaketa modalitate honetako ordu kopuruari dagokio, tutoretzak presentzialak diren ala ez kontuan hartu gabe.

Modalitate mistoko prestakuntza-ekintzek, era berean, modalitate bakoitzerako eskakizunak bete behar dituzte dagokion zatian.

## Laburbilduz, aurretik zehaztutako irizpide guztiak bete behar direla kontuan izanda...

### HASITAKO parte-hartzailea

### AMAITUTAKO parte-hartzailea

### TELEPRESTAKUNTZA

**% 25etik gorako** konexioak, egindako jarraipen-kontrolen kopurua edozein dela ere.

Prestakuntza-ekintzak duen iraupenaren **gutxienez % 75**eko konexioak eta haren programazioan ezarritako jarraipen-kontrolen **gutxienez % 75** egitea.

### MODALITATE MISTOA

Bi modalitateen irizpideak **bereiz** bete behar ditu.

